

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Behar den dokumentazioa matrikula gauzatzeko UPV/EHUn aplikazio informatikora igo beharko duzu 10 eguneko epearen barruan. Ikasle profila erabili behar duzu aplikazioan sartzeko, eta "Matrikulak" karpeta "Matrikulatzeko dokumentazioa igo" atala aukeratu. Bideo bat daukazu azalpenekin.

Dokumentazioa honako hau da:

- Argazkia, beharrezkoa ikasle txartela egiteko .jpg formatuan.
- NAN / Nortasuna egiaztatze agiria
- **PROBA EDO IKASKETAK BESTE UNIBERTSITATE BATEAN EGIN BADITUZU BAKARRI:**
Unibertsitatean sartzeko aukera eman dizuten probaren edo ikasketen fotokopia konpultsatua, CSVrekin egindako kopia, edo ziurtagiri akademiko pertsonalaren fotokopia eta originala.
- **HALA BADAGOKIO**, prezioen aginduaren arabera prezio publikoen salbuespena edo murrizketa egiaztatzen duen dokumentazioa:
 - Ohorezko matrikula batxilergoan
 - Familia ugaria
 - Guraso bakarra duten familiak
 - Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradunak
 - Ikaslearen desgaitasuna ($\geq 33\%$) edo zuzeneko senide batena ($\geq 65\%$)
 - Terrorismoaren biktimak eta senideak
 - Genero indarkeriaren biktimak eta 25 urte baino gutxiagoko seme-alabak
 - Nazioarteko babesaren eskatzaileak eta onuradunak eta aberrigabeak, errolda-ziurtagiria barne.
 - Erroldatze ziurtagiri kolektiboa interesatuak badu desgaitasun bat daukan zuzeneko senidea, genero indarkeriaren biktima baten seme edo alaba bada (25 urte baino gutxiagokoa), edota terrorismoaren biktima baten senidea.
- Ikasleak espedientea lekuz aldatu beharko du unibertsitatean sartzeko proba UPV/EHUn egin ez badu, edota unibertsitateko beste ikasketa batzuetan matrikulatuta egon bada.
- Datu ekonomiko eta estatistiko orria, matrikula-prozesuan jakinarazi beharrekoa.

Matrikularen ordainketa helbideratu nahi baduzu, bankuko datuak eman beharko dituzu ordainketa helbideratzeko inprimakiaren bidez matrikula egiterakoan; baina gogoratu txartel/bizum/NireOrdainketa Wallet-en bidez ere ordain dezakezula.